



BOSTEKO



2013



bosteko 2013




Erakusketa



Exposición

Amorebieta-Etxano

Zelaieta zentroa
Irailak 11-29
11-29 Septiembre



Arrigorriaga

Arrigorriagako Erakustaretoa
Argala Enparantza, z/g
Urriak 1-20
1-20 Octubre



Basauri

Arizko Dorretxea - Torre de Ariz
Frantzisko Kortabarria, z/g
Urriak 22 - Azaroak 10
22 Octubre - 10 Noviembre



Leioa

Kultur Leioa
Jose Ramon Aketxe Plaza, 11
Azaroak 12 - Abenduak 1
12 Noviembre - 1 Diciembre



Getxo

Torrene Erakustaretoa
Torrene, 3. Algorta
Abenduak 3-29
3-29 Diciembre

Aurkezpena

I

Konstante batek definitzen du, nonbait, Bosteko proiektuaren proposamena, abian jarri zene-tik: hiru zenbakiak. Gauza jakina da hiru zenbaki mistikoa dela, zifra sakratua, seguruenik literatura lan gehien eragin duena. Jainkotasun zenbakia da hiru, tentazioena, uko egin izanarena ere bai. Masoien zenbakia da, zientzialariena, dialektika-rena...

Erritmo kontuek bultzatuko zuten, seguruenik, Bosteko proiektua hiru arte-proposamen bildu behar zituela erabaki zuena, swing hutsa izango zen erabaki horren eragilea, hausnarketarik gabeko apeta, kontzientziatik haratago zihoana, erabateko pertzepzio baterantz ia ezbairik gabe. Horixe zetzan —eta datza-, hain zuzen, surrealismoan, errealtate guztien batura atzitzeko xedea. Logikaren zentzuak erakusten dizkiguna, eta Arteak bere duen misterio-tarte horrek erarortzen duena.

II

Tradizioari dagokion moduan, aurtengo Bostekoak ere, 2013ko honek ere, hiru proposamen dakartzkigu ideia bat ardatz hartuta: errealtatean fikzioa.

Egileak, berriz, Juana García Pozuelo, Álvaro Gil eta Sra. Polaroiska dira.

Triangelu erako oinarria duen piramidea osatzen dute hirurek, hiru alde oso ezberdin, arte garaikideari aurre egiteko hiru modelo erakusten digutenak. Baliteke beste inoiz ez suertatzea baterako proposamen batean eta, horrexegatik, aukera aparta daukagu oraingo honetan, gertaera zinez berezia.

Presentación

I

Una constante parece definir la propuesta de Bosteko a lo largo de su existencia: el número tres. Como se sabe, “tres” es un número místico, la cifra sagrada que, probablemente, más literatura ha generado. Tres es el guarismo de las divindades, el de las tentaciones e incluso el de las negaciones. Estamos ante un número masónico, científico, dialéctico...

El que decidí que Bosteko debía constar de tres propuestas artísticas probablemente lo hizo por una cuestión de ritmo, por puro swing, por querencia irreflexiva que, con toda probabilidad, navegaba más allá de la consciencia en dirección hacia una percepción plena. Eso anida(ba) en el surrealismo, la pretensión de alcanzar la suma de todas las realidades. La que nos descubre los sentidos de la lógica y la que emana de ese espacio de misterio que es propio del Arte.

II

Como corresponde a la tradición, el Bosteko de este año, 2013, presenta tres propuestas surgidas en torno a una idea: la ficción de la realidad.

Sus autores son Juana García Pozuelo, Álvaro Gil y Sra. Polaroiska.

Los tres conforman una pirámide de base triangular, tres caras muy diferentes en las que cabría reconocer tres modelos de afrontar el arte contemporáneo. Como quizás nunca más vuelvan a coincidir en una propuesta conjunta, estamos ante una oportunidad única; un acontecimiento ciertamente singular.

Bisitariak hemen aurki dezakeena (eta arretaz irakurriz gero, bir/sortzeak ematen duen plazerra sentituko du), hiru sedimenturen, hiru artiston lanaren aztarnen erakusketa hutsa baino gehiago da.

Proposamen guztiek dakarte auto-aurkezpena aurretik. Hori horrela, proposamenon uztarduren bitartez jardutea dagokit niri; Juana García Pozueloren margolanak, denborazkanpokotasun enigmatikozko haloak etengabe zeharkatuta dauden arkitekturak, Álvaro Gilek burutzen duen irudikapenaren ispilu-islarekin eta berorren ikonoekin gurutzatzen direnako itzal-lerroak miaztea; eta nola eskultura-deriba horiek, beren aldetik, tartean sartzen diren, hau da, elkar zauritzen duten, batak besteari arrasto eginez, nahasturik eta neurri berriak berenganaturik, Sra. Polaroiakaren proposamenaren uni-bertsoa ulertezina dena esploratzeko prest dagoen bitartean, aurrera egin nahian beti ere.

III

Izendatzaile guztietan txikiena, Bosteko 2013k oinarri hartzen duen funtsa, erabat dago lotuta sorkuntzaren enigmekin eta arriskuaren balioarekin. Eta aldebereotasun ausart baten inguruko hiru keinu da, egileen talentua berme duela, hona bildu gaituena.

Protagonista gazteak ditugu, zaharkiturik eta unaturik sentitzen den garai batean kokatuak. Epifania-ekarpen gisa, galde ikurren multzoa eranstean diote elkarreteragin triangeluarraren bidez, aurtengo Bosteko ekimenean, arrastiriko paisaiari, galderon erantzunari barik, partekatzeari tartea eginez.

Bosteko honetan zain dugunaz hausnarketa xehea eginez gero, ekidinezina izango da ondorioa: badute esateko sendo eta eragozlerik inguratzen gaituen orainean indarrean dauden arauak dago-kienez. Imintziorik eta perturbazioarako elementurik gabe, jatorri dutenaren sustraiak eta ozeanoz bestaldeko erreferentziak uztartzen dituzte

Lo que aquí le aguarda al visitante, (y si hace el esfuerzo de leerlo detenidamente recibirá el placer de re/crear), es algo más que la mera exhibición de tres sedimentos, de tres huellas más o menos fidedignas del hacer de estos artistas.

Como cada propuesta viene precedida por una autopresentación, me toca hablar de lo que se encuentra entre los intersticios que las unen; escrutar esas líneas de sombra donde la pintura de Juana García Pozuelo, esas arquitecturas siempre atravesadas por un halo de una atemporalidad enigmática, se entrelaza con la reflexión especular de la representación y su icono que lleva a cabo Álvaro Gil; y cómo estas derivas escultóricas a su vez interfieren, es decir se hieren entre sí en el sentido de rozarse, de mezclarse y de redimensionarse, con el universo de la propuesta de Sra. Polaroiaska siempre dispuesto a explorar lo insondable, siempre pendiente de poder avanzar.

III

El mínimo común denominador, esa base en la que se asienta Bosteko 2013 sabe mucho del enigma de la creación y del valor del riesgo. Y lo que aquí y ahora nos convoca son tres gestos de una decidida contemporaneidad que vienen avallados por el talento de sus hacedores.

Son protagonistas jóvenes de un tiempo que se siente viejo y cansado. Un paisaje crepuscular en el que, a modo de aportación epifánica, en este Bosteko, en esa interacción triangular, aportan una suma de interrogantes que no esperan tanto ser contestados como ser compartidos.

Si se piensa detenidamente lo que en este Bosteko nos aguarda, la conclusión inevitable es que estamos ante una seria objeción a las reglas imperantes del presente que nos circunda. Sin aspavientos y sin elementos perturbadores a simple vista, Juan, Álvaro y Sra. Polaroiaska (Alaitz y María) enlazan las raíces de su pro-

Juanak, Álvarok eta Sra. Polaroidak (Alaitz eta María); globaltasunak jatorriak ematen dizkigun nortasun-zertzeladak ezabatzerik ez duela eta, aldi berean, jatorria, biltzen dueneko erreferentzia unibertsalik gabe ulertzerik ez dagoela berresteko modu bitxi eta konbentzigarria.

Hiru proiektuok, euron ezberdintasunean eta, halatan ere, elkarrengandik hain hurbil egonda, askoz konplexuagoak diren lanen isla zatikatuak ditugu. Eta konplexutasun horiek, zeinek berea, osatzen eta definitzen dute egileetako bakoitza, guztientzat funtsezko eta bateratzaile den elementu bat eginik: ikertu nahian eta lurraren azpitik sortzen den umorean. Jakin-mina eta pazientzia, buru-argitasuna eta trebezia... iparririk gabe bizi deneko sasoiaz harago abiatzeko lanabesak. Beste era batera esanda, ezagun duena arakatzeko eta ikusgarri dena ikusezin denarekin kroatzeko gonbidapena osatzen duen keinuaren trilogia poetikoa dugu begien aurrean.

Juan Zapater

cedencia con referencias transoceánicas; una curiosa y convincente manera de ratificar que lo global nunca termina por borrar las señas de identidad del origen y que, el origen, ya no es posible concebirlo sin la referencia universal a la que pertenece.

Tan diferentes entre sí y sin embargo tan próximos, estos tres proyectos, reflejos fragmentados de una obra mucho más compleja que conforma y define a cada uno de los integrantes, se concilian en algo fundamental y afín a todos ellos: un deseo de investigación y un subterráneo sentido del humor. Curiosidad y paciencia, ingenio y oficio... herramientas para trascender en este tiempo tan desorientado. O sea, estamos ante una trilogía poética del gesto que conforma una invitación a indagar en aquello que sabe y puede engarzar lo visible a lo invisible.

Juan Zapater



JUANA GARCÍA POZUELO

Juana García-Pozuelo Logroño jaio zen 1978an eta Bilbon bizi da 1996az geroztik. Arte Ederretan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Arte Sorkuntzaren eta Ikerketaren Masterra unibertsitate berean. Hainbat ikastaro osatu du bere prestakuntza. Batzuk aipatzearen, New Yorkeko School of Visual Arts delakoan egindakoa eta Salzburgoko Summer School of Fine Art burutu zuena. Aipatzekoa da, baita ere, Bilbaoarte Fundazioko hainbat arte eta pintura mintegitan parte hartu izana, edo Bilboko Alondegian Mabi Revueltak hiri-esplorazioaz duela gutxi eskainitako ikastarokoa.

Banakako zazpi erakusketa egin ditu Bilbon, Basaurin, Gasteizen eta Logroñon. Hainbat talde-erakusketatan ere hartu du parte, 2001ean hasita, Espainiako zenbait tokitan. Adibidez, L'Oreal sarian (desagertua gaur egun), Alacanteko Diputazioan, A Coruña María José Jové fundazioan eta Bizkaiko eta Errioxako lehiaketetan.

Jasotako sarien artean nabarmentzekoak dira Bizkaiko Foru Aldundiak 2012an emandako beka, Bilbaoarte Fundazioarekin egoiliar jardun izana birritan, New Yorkeko Staten Islandeko Snug Harbor Cultural Center delakoan lortu zuen erresidentzia, eta Errioxako Legebiltzarreko Pintura Lehiaketako artista gazteentzako bi sari.

Juana García-Pozuelo, nacida en Logroño en 1978 y residente en Bilbao desde el año 1996, es licenciada en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco y Master de Creación e Investigación en Arte en la misma universidad. Ha completado su formación con diversos cursos entre los que destacan el paso por la School of Visual Arts de Nueva York y un curso en la Summer School of Fine Art en Salzburgo. También cabe señalar la participación en diversos seminarios de arte y pintura en la Fundación Bilbaoarte, o la más reciente asistencia al curso de exploración urbana con la artista Mabi Revuelta, impartido en la Alhóndiga de Bilbao.

Ha realizado siete exposiciones individuales en Bilbao, Basauri, Vitoria-Gasteiz y Logroño. También ha participado en numerosas exposiciones colectivas desde el año 2001 en varios puntos de la geografía española, como en el desaparecido premio L'Oreal, la Diputación de Alicante, la Fundación María José Jové de La Coruña y diversos concursos en Bizkaia y La Rioja.

Entre los galardones que ha recibido, cabe destacar el haber sido becada en 2012 por la Diputación Foral de Bizkaia, haber sido residente dos veces en la Fundación Bilbaoarte, residente en el Snug Harbor Cultural Center de Staten Island en Nueva York y haber obtenido dos premios a Joven Adquisición en el Certamen de Pintura del Parlamento de La Rioja.

Alegiazko natura-inguruan ageri diren etxebizitzak dira koadro hauek betetzen dituzten etxeak. Ez-ohiko meteorologia-fenomenoen mende batzuetan, edo murgilduta daudeneko isolamendu eta gelditasun zentzazioa areagotzen duten giro suntsuetan kokatuak beste batzuetan.

Eraikin tradizionalak dira, Hollywoodeko zine-industria eragingarriari esker ezaguna zaigun Estatu Batuetako herri eraikuntzan errepikatzen diren parametro batzuetatik abiatuta garatuak. Arkitektura europarraren estiloen perbertsioaren emaitza dira horrelako eraikinak, indianoen etxeetan eta gure inguruko hiri-paisaiako etxetzar jakin batzuetan ere aurki daitezkeenen parekoak. Horma barruan ezkatututakoaren, bertako bizitzen dramen eta sekretuen inguruko espekulazioak egiteko gonbitea luzatzen digute.

Batzuetan gure ingurumenean bertan behera utzirik antzematen zaionaren alegoria-sinbolo bilakatzen diren etxetzarrak dira, beste espazio eta denbora batzuetarako ateen gisa ageri dakizkigukeenak. Ezezaguna denaren edukiontzi garaikidea, iristeko eta ezagutarazteko dagoenarena.

Las casas que pueblan estos cuadros son viviendas que se presentan en un entorno natural imaginario. Sometidas, a veces, a fenómenos meteorológicos inusuales o en ambientes desolados que refuerzan la sensación de aislamiento e inmovilidad en las que están inmersas.

Es un tipo de edificación tradicional que se desarrolla a partir de unos parámetros que se repiten en la arquitectura popular estadounidense, al que todos estamos acostumbrados a través de años de eficaz industria cinematográfica hollywoodiense. Un tipo de construcciones producto de una perversión de estilos arquitectónicos europeos, de los que también se pueden encontrar ejemplos en casas de indios y determinadas mansiones de nuestro paisaje urbano.

Invitan a la especulación, a lo escondido, a los dramas y secretos de la vida dentro de sus muros. Son mansiones que se convierten en símbolo alegórico del abandono que se percibe a veces en nuestro entorno y que también pueden sugerir puertas a otro espacio-tiempo. El contenedor contemporáneo de lo desconocido, lo que está por llegar y ser desvelado.



After
Ólio-pintura mihisean / Óleo sobre lienzo
33 x 48 cm



Dame tiempo

Ólio-pintura mihisean / Óleo sobre lienzo

33 x 48 cm



Onironauta

Ólio-pintura mihisean / Óleo sobre lienzo

33 x 48 cm



Se acerca

Ólio-pintura mihisean / Óleo sobre lienzo

180 x 150 cm



SRA. POLAROISKA

Sra Polaroiska Alaitz Arenzanak & Maria Ibarretxe osatua dago.

Zine esperimental, akzioaren artea, sortze eszenikoa eta koreografia dira beraien lanaren ardatza. Nahita dira euren piezak anbiguoak, gorputzari atxikitako rolekiko jolasean, so dagoenaren begirada desorekatuz. Dantzaren eta eszena-arten ikerketan diharduen Ruemaniak taldearen kideak ere badira artista biak.

16 mm-tan filmatutako lehen lanari esker Injuve 2003 saria eta soinu bandarik onenarentzako Mecal saria irabazi zituzten. Handik aurrera, arte-zentroetan eta jaialdietan izan dira ikusgai beraien lanak: CA2M, Montehermoso, Madrilgo Arte Ederren Zirkulua, Guggenheim Bilbao, Bilbaoarte, Leuven-go Stuk Kulturcentrum, Stockholm-eko Cervantes Institutua, Reina Sofía, Zinema Ezberdinen Pariseko Jaialdia, besteak beste.

2008an A.I.R Laboratory egoitza beka lortu zuten Varsoviako Centre for Contemporary Art Ujazdowski Castle delakoan, eta Bilbaoarteko egoiliarrentzako beka.

Partaide dira “Kimuak” programan, eta “Ekspozycja 19” filma proiektatu zuten nazioarte mailan, 40 jaialdi baino gehiagotan. 2012an Ertibileko lehenengo saria eskuratu zuten “Pilota Girls” lanari esker. Partaide dira “Territorios y Fronteras” experiencias documentales contemporáneas IV. Maleabilidad... y ¡Revolución! 2013 izeneko proiektuan.

www.cargocollective.com/srapolaroiska

Sra Polaroiska está formado por Alaitz Arenzana & María Ibarretxe.

Su obra gira en torno al cine experimental, el arte de acción, la creación escénica y la coreografía. Sus piezas, intencionadamente ambiguas, juegan con los roles asociados al cuerpo, desestabilizando la mirada de quien observa. Ambas forman también parte del colectivo Ruemaniak centrado en la investigación de la danza y las artes escénicas.

Con su primera pieza filmada en 16mm ganan el premio Injuve 2003 y premio mejor banda sonora Mecal. A partir de entonces sus obras se exponen en centros de arte y festivales como CA2M, Montehermoso, Circulo de Bellas Artes Madrid, Guggenheim Bilbao, Bilbaoarte, Stuk Kulturcentrum de Leuven, Instituto Cervantes de Estocolmo, Reina Sofía, Festival de Cinémas diferentes de Paris, entre otros.

En 2008 obtienen la Beca residencia A.I.R Laboratory en el Centre for Contemporary Art Ujazdowski Castle de Varsovia y la Beca residente Bilbaoarte.

Forman parte de “Kimuak” proyectando su película “Ekspozycja 19” en más de 40 festivales internacionales. En el año 2012 reciben el Primer premio Ertibil con la pieza “Pilota Girls”. Participan dentro de “Territorios y Fronteras” experiencias documentales contemporáneas IV. Maleabilidad... y ¡Revolución! 2013.

www.cargocollective.com/srapolaroiska

ALAITZ ARENZANA (BILBAO, 1976.)

Ikus-entzunezkoen Komunikazioan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean, 1999/2000 promozioan.

Postproduzio-masterra, CEV, Madril, 2000. Pascal Aubier tailerra, Nazioarteko Zine eta Telebista Eskola, EICTV, San Antonio de Los Baños, Kuba, 2003.

Partaide “Retóricas de género. Políticas de la identidad. Performance, Performatividad y Prótesis” mintegian. UNIA. Sevilla, 2003.

Horrekin batera, dokumentalen eta publizitate spoten zuzendari dihardu.

MARÍA IBARRETXE (BILBAO 1977)

Arte Dramatikoaren diplomaduna BAIn eta Basauriko Antzerki eskolan.

Zuzendaritza ikasketak egin ditu EITVn (San Antonio de los Baños, Kuba), ikasle jardun du eta mintegietan parte hartu du Meg Stuart, Beatriz Preciado, Dominique Mercy, Bojana Kunst, Jordi Cortes, Damian Muñoz, Simone Aughterlony eta beste batzuekin.

Horrekin batera, 2007az geroztik Koen De Preter koreografo eta dantzariarekin batera ari da lanean Belgikan. Nazioarte mailako hainbat jaialditan aurkeztu ditu koreografia-piezak, eta sortzaile sortu berriak onen moduan sailkatu dituzte Belgikan 2011/12an.

ALAITZ ARENZANA (BILBAO 1976)

Licenciada en Comunicación Audiovisual, Universidad del País Vasco, 1999/2000.

Master de Postproducción digital, CEV, Madrid, 2000. Taller Pascal Aubier, Escuela Internacional de Cine y Televisión, EICTV, San Antonio de Los Baños, Cuba, 2003.

Participación en el seminario “Retóricas de género. Políticas de la identidad. Performance, Performatividad y Prótesis”. UNIA. Sevilla. 2003.

Paralelamente trabaja como realizadora de documentales y spots de publicidad.

MARÍA IBARRETXE (BILBAO 1977)

Diplomada en Arte Dramático por B.A.I y Basauriko Antzerki Eskola.

Ha cursado estudios de dirección en la E.I.T.V (San Antonio de los Baños/Cuba) y ha tomado clase y participado en seminarios con Meg Stuart, Beatriz Preciado, Dominique Mercy, Bojana Kunst, Jordi Cortes, Damian Muñoz, Simone Aughterlony, entre otros/as.

Paralelamente desde el año 2007 trabaja junto al coreógrafo y bailarín Koen De Preter en Bélgica. Sus piezas coreográficas han sido presentadas en numerosos festivales internacionales y seleccionados/as como mejores creadores emergentes en Bélgica 2011/12.



Sleeping over plastic
Instalazioa / Instalación

Koltxoneta puzten amaitutakoan, objektuaren elikadura eteten duen balbula ixten du pertsonak, puzgailua kendu eta etzan egiten da.

Erasoaz ohartaraziz gero, bunkerrek beharrezkoa den guztia daukaten bezala, SLEEPING OVER PLASTIC muntaiaaren setak izu-atake bate-tik edo garbiketa kontrolatu batetik bizirik irtete-ko toki ezin hobea dirudi. Auto-artapen errituala eszenaratu dute protagonistek, errealtatearen ordezkioak ezarrita bertan: koltxoi puzgarria, go-mazko garaikurra eta futbol talde bateko kidee-kiko amets erotiko mekanizatua. Airean zintzilik dagoen erriflea kargaturik dago, tiro egiteko prest, baina katua sakatuta, arma hutsera nola dispa-ratzen den entzungo dugu.

Gela ala dekoratua? Suntsituak izateko sor-tzen dira eszenatokiak.

Sra. Polaroiskak bere laborategi barrura gara-matza, eta inguratzen gaituena ulertzen saiatzeko beste modu bat datza bertan. Gai bati hurbildu, zokomiran ibili, jokoaren arauak definitu eta gero batera jardungo duten, elkarrekin talka egingo duten eta ezinbestean egonkorra ez den denbora-lerroa osatuko duten elementuak sortu. Gauzak kontroletik ate uzteko laborategia.

Cuando se termina de hinchar la colchoneta, la persona cierra la válvula que pone pausa a la alimentación del objeto, quita el hinchador y se tumba.

Al igual que un búnker está equipado de lo necesario en un aviso de ataque, el set de SLEEPING OVER PLASTIC parece el lugar ideal para sobrevivir a un ataque de pánico o a una limpieza controlada. Las protagonistas escenifican un ritual de auto-conservación cuya realidad es reemplazada por sus substitutos: un colchón hinchable, un trofeo de goma y un sueño erótico mecanizado con miembros de un equipo de fútbol. El rifle suspendido en el aire está cargado y listo, pero al apretar el gatillo escuchamos cómo el arma es disparada al vacío.

¿Una habitación o un decorado? Los escenarios se crean para ser destruidos.

Sra. Polaroiska nos conduce dentro de su laboratorio donde reside otra forma de intentar entender lo que nos rodea. Acercarse a un tema, merodearlo, definir unas reglas del juego y crear los elementos que luego, se compenetrarán, chocarán entre sí y formarán parte de una línea temporal no necesariamente estable. Un laboratorio donde dejar las cosas fuera de control.



Sleeping over plastic
Instalazioa / Instalación



Álvaro Gil (Corella – 1986) Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun Bilbon bizi da, eta bertan egiten du behar, arte ekoizpenean eta ikerketa-lanetan murgilduta, UPV/EHUren beka batez “Custom herrikoia, gainazaleko eraldatze-eraikuntzak artearen periferian” izenburua duen doktorego-tesia egiten duen bitartean.

Hainbat arte azokatan, galeriatan eta Museotan izan dira ikusgai beraren lanak. Batzuk aipatzearen: Swab, Just Mad, Louis 21, Raquel Ponce, Guggenheim Bilbao Museoa eta Arte Garaikidearen Huarte Zentroa, besteak beste direla.

2012an Bizkaiko Foru Aldundiaren beka izan zuen “Ikearekin Tuneatzen” izeneko proiektua garatzeko, bai eta Nafarroako Kultura sailarena ere “Brikolajismoak eta neurri egindako bestelako zereginak. Egizu zuk zeuk”.

Álvaro Gilen arte-prozesuak kolokan jartzen du goi- eta behe-kulturen arteko banaketa. Kustomizazioaren kontzeptua dute oinarri beraren eraikuntzek, neurri egindako eraldaketak, brikolajearen jarreratik, emaitza bikainak eta ezustekoak erdiesten dituztenak. DIY (Do It Yourself, “Egizu zuk zeuk”) delakoaren eta “kontsumorik ezaren” praktikarekin bat egiten du beraren ikerketak. Eraldatze-karkasak erantsita, beste balio bat lortzen duten objektuak asmatzen ditu, preziosista da balio hori formari dagokionez, baina kritikoa kontzeptuari erreparatuz gero. Birziklapenaren eta muntaiaren bidez, forma konplexuak hartzen dituen prozesu-jarrera da berea. Funtzionala denak eta estetikoak denak espero ez den adostasunean bat egiten duteneko tramankuluak.

www.alvarogilsoldevilla.com

Álvaro Gil (Corella, 1986) es licenciado en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco. Actualmente vive y trabaja en Bilbao donde se dedica a la producción artística y a su labor investigadora, realizando su tesis doctoral, titulada “El custom popular, construcciones transformativas de superficie en la periferia del arte”, investigación becada por la UPV/EHU.

Sus piezas se han podido ver en diferentes ferias de arte, galerías y museos como Swab, Just Mad, Louis 21, Raquel Ponce, Museo Guggenheim Bilbao y el Centro de Arte Contemporáneo Huarte, entre otros.

En 2012 es becado por la Diputación Foral de Bizkaia para desarrollar el proyecto “Tuneando con Ikea” y por el Departamento Cultural de Navarra para realizar “Bricolajismos y otros menesteres hechos a medida. Hágaselo usted mismo”.

El proceso artístico de Álvaro Gil cuestiona la separación entre alta y baja cultura. Sus construcciones se basan en el concepto de customización, transformaciones hechas a medida, que desde una actitud bricolajista alcanzan resultados brillantes e imprevistos. Su indagación se enlaza con la práctica del DIY (Do It Yourself, “Hazlo tú mismo”) y del “no consumo”. Concibe objetos que mediante la incorporación de carcassas transformativas adquieren un nuevo valor, formalmente preciosista y conceptualmente crítico. Una actitud procesual y relacional que, a través del reciclaje y del montaje, alcanza formas complejas. Artefactos donde lo funcional y lo estético se encuentran en inesperada conformidad.

www.alvarogilsoldevilla.com

Azken bolada honetan denbora gehiegi ematen dut tailerrean bakarrik, Discovery publikoa ikusten.

Zerbait eraikitzeko bulkadaren zain betiere eta, harrapatzen nauenean, horixe da egiten dudana bakarra, emaitza nire aurrean edukitzea lortu arte.

Gainazal leunduak maite ditut, gogoko ditut kolore distiratsu eta kontrastedunak, gustuko dut enbor lehor eta latzak laztantzea, material malguek eta goma-antzekoek liluraturik, erregelekin eta konpasekin maitemindurik. Atalak leherrazi nahi ditut, formak isurarazi eta lau pisuko sandwich gozoak muntatu, hermetiko eta saka-tuak. Ertzetatik gainezka eginagatik ere, egitura sendoa dutenak. Testura eta zapore bariatudun mokaduak, ebakortzen artean trabaturik geratzen diren formadunak, ahosabaian iltzaturik lotzen diren punta geometrikoak, eta arrosa kolorez tindaturiko silikona goxoa, eztarriko arnasbidearen buxatzaile. Barraketako basakatuen begi bitxiak, neoi merkeko kristalak dituztenak. Tunning gama fluoreszenteekin eta muntaia-joko miresgarrietatik ateratako tonalitateekin jolasean diharduten kolore-geruzak... Saturatu eta lodiak... zurtrauskila, ondo markatua.

Irudi hutsa izan nahi duen forma, dena emango nuke gainazalaren truke; nire atalen poligono-aurpegiak apaintzeko lanean murgiltzen naiz, txepeldurik ari naiz lanean zinta eta bisturia eskuetan, gorde beharreko koloreak estaltzen, presioaren indarren botatako koloreaz tailerreko airea berriro kargatuz; kolorea erortzen eta dena koloreaz blaitzen. Bitartean, oharkabea, aurrera doa erlojua, eta "Teutul aitak" Orange konderri urrunean duen tailerra suntsitua bat jalgitzen dituen oihuak dira, hondo-musika gisa, kokatzen laguntzen didaten bakarrak.

Ebakitzeko kaskoa doiturik, bolumena igotzen dut, goraino. Presioak ere gora egiten du, zorrozta-sun metrikoa beharrezkoago egin ahala. Burua

Últimamente paso demasiado tiempo en el taller solo, viendo la Discovery pública.

Siempre esperando al impulso de querer construir algo, y cuando me arrea, es lo único que hago, hasta que por fin consigo tenerlo delante.

Adoro las superficies pulidas, me encantan los colores brillantes y contrastados, me gusta acariciar un tronco seco y áspero, fascinado siempre por los materiales elásticos y gomosos, enamorado de las reglas y los compases. Quiero explotar piezas, hacer fluir las formas y montar deliciosos sándwiches de cuatro pisos bien herméticos y apretados. Que se desborde por los bordes pero firme en su estructura. Bocados de variadas texturas y sabores, con malas formas que se te quedan entre las paletas, puntas geométricas clavadas en el paladar y deliciosa silicona teñida de rosa en la garganta cortando el paso. Extraños ojos de lince barraquero, en ellos cristales de neón barato. Baños de color que juguetean con gamas tuneras fluorescentes y con tonalidades sacadas de maravillosos juegos de montaje... Saturados y densos... madera rústica bien marcada.

Forma que quiere ser pura imagen, lo doy todo por la superficie, me vendo a la tarea de adornar las caras poligonales de mis piezas, embobado trabajo con cinta y bisturí, cubriendo los colores a reservar, para volver a cargar el aire del taller de color expulsado a presión, cayendo y llenándolo todo, mientras sin darme cuenta, el reloj da vueltas y solo me posicionan los "chillos" de fondo de "Teutul padre" destrozando su taller en el lejano condado de Orange.

Con los cascos de cortar ajustados subo el volumen de todo. La presión aumenta a la vez que el rigor métrico se hace más necesario, mi mente se concentra, me encuentro más acompañado que nunca a pesar de estar rodeado únicamente de



Sandwich rústico de lince, 2013

Zura, erretxin akriliko, silikon, akriliko eta altzairuzko torlojuak /
Madera, resina acrílica, silicona, acrílico y tornillería de acero
64 x 48 x 38 cm

kontzentratuta daukat, lagunez inguraturik sentitzen naiz, egundo ez bezala, makina oihulari eta politek baino inguratzen ez banaute ere. Diskoaren biraketa-abiadura handiagotu egiten da, espazioa gortu egiten da, jadanik ez dut telebistaren soinua aditzen.

máquinas gritonas y bonitas. El disco se revoluciona, el espacio ensordece y ya dejo de oír la tele.




Subwoofer azul miel de madera exótica, 2013

Zura, formika, biniloak, akrilikoa, PVC eta IKEAko osagarriak /

Madera, formica, vinilos, acrílico, PVC, y accesorios IKEA

110 x 125 x 80 cm



Cristal polifluor, 2013

Zura eta akrilikoa / Madera y acrílico

135 x 120 x 130 cm

Kreditoak / Créditos

Antolakuntza / Organización

Amorebieta-Etxanoko AMETX Erakunde Autonomoa
Arrigorriagako Kultur Etxea
Basauriko Kultur Etxea
Kultur Leioa
Getxoko Kultur Etxea

Laguntza / Colaboración

Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura saila

Komisarioa / Comisariado

Luis Javier Ugarte (Ametx Erakunde Autonomoa)

Testuak / Textos

Juan Zapater (Bilbaoarteko zuzendaria/Director de Bilbaoarte)
Juana García-Pozuelo
Álvaro Gil Soldevilla
Sra. Polarowska

Itzulpenak / Traducciones

Inés Gandarias (Ametx Erakunde Autonomoa)

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación krea comunicación

Muntaia eta garraioak / Montaje y transporte

Hurbil

Aseguroak / Seguros

Egiasa

